

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

25

urteko
esperientzia

euskal
kulturaren
zerbitzuko

2016ko iraila

AITZINSOLASA	3
EKEren HISTORIA	4
EKEren EGINKIZUNAK	5
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA ZENBAKITAN	6
LAN ALORRAK	
1 - Ondarea & sorkuntza	8
Ondarea sorkuntzaren elikagai...	
2 - Elkarteen, lurraldeen eta kultura politika publikoen laguntzea	16
2-1 Elkarteen laguntzea	
2-2 Lurraldeen laguntzea	
2-3 Kultura politika publikoen laguntzea	
3 - Mediazio numerikoa & multimedia	24
3-1 Erreferentziazko erakusketa ibiltariak	
3-2 www.eke.eus, internet atari ezagutua	
3-3 Euskal kulturaren behatoki bati buruz	
MUGAZGAINDIKO HARREMANAK	30
HEDAPENA MUNDUAN	32

Ipar Euskal Herriko gobernantzan aldaketa sakonak ekarriko dituen lurralde erreformak anitz erakunde antolaketa berri horretan ukanen duten tokiaz gogoetatzera eramaten ditu.

Hogeita bost urtez, Euskal kultur erakundeak gaitasunak eta jakinduriak lortu ditu egitasmo egituratzaileen obragintzan edo obralaritzan. Halaber, aditu eta ingeniaritza lana egin du, nola erakunde publikoentzat, hala kultura eragileentzat, bai eta mugazgaineko harremanetan. Bestalde, tokiko, Frantziako eta nazioarteko partaideen egiazko sare bat sortzeko gai izan da, eta gaur egun, osoki bere tokia badu Euskal Herriko bai eta haratagoko kultura erakundeen artean.

Dokumentu honen xedea, Euskal kultur erakundeko lan sail ezberdinen aurkeztea da eta kartografia baten bidez, horien banaketa erakustea EKEren eguneroko lan eremu guzietan.

Erran gabe doa hainbat urtez Euskal Herriko elkarteek eta artistek indartzen eta arraberritzen duten euskal kulturaren leinurua dela ere.

Eiki, Euskal Herria 25 urtez aldatu da, euskal kultura ere : hor daukagu kultura edo arte eragileen aberastasun handia, ikuskizun antolazaileen aniztasuna, izan elkarte izan egitura publiko ; herri elkargo frangotan « kultura gaitasuna » hartu dute, etabar.

Ondorioz, dokumentu honetaz gain, Euskal kultur erakundeak ekoiztuko du urte ondarreko, euskal kulturaren aldeko Herrien arteko Sindikatak galdegin dion lana, hiru zati dauzkana : euskal kulturaren gaurko « argazkia », erakunde ezberdinen kultura gaitasunen antolaketa, eta euskal kulturaren aldeko politika publikoen norabideak.

Bi dokumentu hauen helburua da euskal kulturaren alor guziak sostengatzeko eta iraunkortzeko politika publiko baten bidean ezartzeko HELEP bakarreko hautetsien hautuak argiztatzea.

Gobernantza berezi baten berme, kultura eragileen eta erakunde publikoen arteko elkarriketaren zutabe, talde profesionalaren jabe : Euskal kultur erakundeak bere gaitasun guziak elkargo berri horren zerbitzuko ezarriko ditu.

Euskal Kultur Erakundearen sortzea

1990

- «Euskara eta ondarea» sailaren sortzea
- Irisarriko lehen Ondarearen egunak

Urte anitzeko kultura-programak abiatu zituen: *Kantuketan* (1998), *Batekmila* (2005), *Hogei'ta* (2011)

1992

- EKE haurrei zuzendu literatura sorkuntzaren aldeko lanean hasi zen, «*Xirrixta*» eta gero «*Kometa*» aldizkarien ekoizpenarekin

EKEk kultura eta arte alorreko egintza bere jardueraren erdigunera berriz ekarri zuen, Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) sortzearen ondotik

1998

2003

Eusko Jaurlaritzarekin lehen hitzarmena izenpetu zuen (mugazgaindiko harremanak garatzeko)

2004

2005

Euskal kulturaren web ataria sortu zuen (www.eke.eus)

«*Eleketa*» programa abiatu zuen, ahozko memoriaren biltzeko eta agerian emateko xedez

2007

2011

Kultura alorreko politika publikoen sortzeko obralaritzaren laguntzeko eginkizuna bere gain hartu zuen

Elkarteei eta kultura elkarteei zuzendu sentsibilizazio eta formakuntza ibilbideak plantan eman zituen

2012

2015

Lurralde mailako egitasmoen garatzea: euskal dantza (besteak beste, «*Soka*» erakusketa multimedia - 2015), euskal zinemaren banaketa, euskal antzerkiaren hedapena, arte eta kultura heziketa

Euskal Kultur Erakundearen eginkizun nagusia euskal kulturaren garapenaren eta hedaduraren sustatzea da.

Euskal Kultur Erakundea (EKE) 1990ean sortu zen, euskararen eta euskal kulturaren alorretan lanean ari diren elkarteek galdeginik eta Estatuaren, Akitania eskualdeko kontseiluaren, Departamenduaren eta Euskal Herriko herriak biltzen dituen euskal kulturaren aldeko herrien sindikataren borondate politikoari esker.

Sortu zenetik, Uztaritzen du egoitza. Euskal kulturaren zaintzea, transmititzea eta hedatzea ditu lan ardatzak.

EKEk 160 kultur elkarte kide baditu eta egun guzietakoan laguntzen ditu. Elkarte horiek ikusgarrigintza, literatura, ondarea, entzun-ikus eta arte bisual alorretan ari dira.

Euskal Kultur Erakundeak kultura ekintzen eragile ere izan nahi du. Beraz, bere egitasmoak garatzen ditu, bere elkarteekin eta beste kideekin elkarlanean (erakusketak, urte anitzeko programak, hala nola *Kantuketan*, *Batekmila*, *Eleketa* edo *Hogei'ta*, euskal kulturaren web ataria, etab.).

Azkenik, 2011z geroz, erakunde publikoek Kultura alorreko politika publikoen sortzeko obragintzaren laguntzeko eginkizuna eman diote (euskal kulturaren alorreko aditu lanak eta kontseiluak).

Bere 9 langile profesionalekin, EKE euskal kulturaren baliabide gune gisa ezagutua da eta mugazgaindiko harremanetan eginkizun handia du, besteak beste, Eusko Jaurlaritzarekin duen partaidetzari esker.

Ezohiko gobernantza

Euskal kultura, eragile nola amatur hala profesionalek sortzen, girotzen eta egunerokoan biziarazten dute, eta herritarrekin partekatzen ; hainbat erakunde edo ekonomia munduko partaideek garatzen laguntzen dute.


Sortu denetik, Euskal kultur erakundearen kudeantza moldea aktore ezberdin horien bateratzean oinarritua da, Administrazio kontseilu erabakitzailea aktore guzti horien ahotsa delarik.

Diziplina anitzetako lantalde aditu eta inplikatu batekin, Euskal kultur erakundea kultura edukinen ekoizpenerako eta hedapenerako tresna bat da, bai eta ere euskal kulturaren ikerketa eta prospektiba laborategia.

Euskal kultur erakundea zenbakitan

EKE, partaide sare handia

EKEko aurrekonduaren bilakaera



EKEko diru-iturrien banaketaren bilakaera

(Estatua, Departamendua, Eskualdea, Herrien arteko sindikata, Eusko Jaurlaritza)

Urtea	Estadoa	Departamendua	Eskualdea	Herrien arteko sindikata	Eusko Jaurlaritza*
1995	182.939 €	83.847 €	83.847 €	79.126 €	-
2005	196.000 €	176.956 €	159.144 €	120.000 €	30.000 €
2015	196.000 €	196.000 €	186.000 €	144.200 €	50.000 €

* Mugazgaidindiko harremanak

1995

105

partaide

46 partaide instituzional eta
59 elkarte, kultura egitura eta
pertsona berezituak.

2005

227

partaide

84 partaide instituzional eta
143 elkarte, kultura egitura eta
pertsona berezituak.


2015

431


partaide

47 partaide instituzional eta
384 elkarte, kultura egitura eta
pertsona berezituak.


Elkarte kideen kopurua
Ordainsaria pagaturik




Diruz lagundu elkarten
kopurua



Hitzarmenen bidez elkarteei
eman diru kopurua



EKEko lantaldea - Postuak :
denbora osoko baliokidea (ETP)



Ondarea & sorkuntza

| 9

Eskuratu ondarea, gure gain hartu eta gaurkoari egokitu



1992

Ondarea eskuratu



Euskal kultur erakundea ondarearen sailan engaiatzen da...

Sail hortan eragiten duten indar bizen elkartzen saiatzen da :

- Ondarearen gidaliburua argitaratuz (elkarte, pertsona eta erakundeak bateratzen dituen)
- Lehen Ondarearen Egunak antolatuz (bi urteetarik eginen dira)
- Euskal ondarearen batzorde iraunkorra sortuz
- Jakinduria ekarriz euskara eta ondare sailetan (itzulpenak, toponimioen berridazte).

2007

Ondarea gure gain hartu



Euskal kultur erakundea ondare materiagabearen arloan berezitzen da...

Ahozko memoria bilduz eta baloratzuz :

- *Eleketa* programa (307 lekuko filmatuak gaur egun)
- Erakusketa desberdinak (*Amikuztarrak mintzo*, 2009 - *Itsasturiak*, 2011 - *Soka*, 2015)
- Euskal Herriko artxibo soinuaren balorapena (Pirinio Atlantikoetako departamenduaren obragintzapean)



2015tik haratago...


Ondarea gaurkoari egokitu



Euskal kultur erakundea kultura eta ikerketa uztartuko dituen euskal etnopoloko baten alde agertzen da

Ondarea /sorkuntzaren arteko harremanaz gogoeta bultzatuz :

- Gogoeta talde informal bat sortzen du EKEk 2012an
- Antropologo batek bost sorkuntza garaikide hurbiletik ikertzen ditu (2014)
- Bere analisiak toki publikoetan zabalduak eta eztabaidatuak dira (2015)



Ondarea & sorkuntza


Ahozko memoriaren bilketa eta balorapena 2007 > 2015

Eleketa programa

Pirinio Atlantikoetako departamenduko obragintzapean
(2009az geroz)

Lekukoen banaketa herrika, probintziara, gaia

- Itsas ondarea
- XX. mendearen bigarren zatiaren mugimendu handiak
- Espartingintza eta zapatagintza
- Gai orokorrak (130 lekuko)
- Euskal dantza



Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorizazioa

1.210
oren grabaketa

Artxiboak Euskal kultur erakundean tratatuak dira, numerizatuak izan ondoren (deskribapena, dokumentazioa, datubase numerikoen sortzea eta osatzea).


2008-2015 urteen artean : **5 fondo balorizatuak, hots orotara 1.210 ordu, 2.377 artxibo sailkatuak** (bideo zati edo soinu), **3.612 lanordu eskatu dutenak**



MuCEM museoko ahozko inkestak Euskal Herrian (2008an baloratua) : **43 orduko fondoa - 1048 soinu grabaketa**


2012az geroztik, Departamenduko programaren baitan eginak (artxibo zaharren begiratzea, numerizatzea eta baloratzea) :

- Belokeko frailetxearen artxiboak : 19 ordu - 33 bideo eta soinu
- Irulegiko irratia, Baxenabarreko euskal irratia (parte bat) : 873 ordu - 747 soinu
- Ikerzaleak elkarte - Mauleko espartingintza : 20 ordu - 21 bideo
- Filipe Oyhamburu koreografoaren eta koro gidariaren artxiboak : 253 ordu - 528 bideo eta soinu



7.384
elkarrizketa
zati

14 datu baseetan banatuak
9.695 lan ordu
(bilketa, muntaketa, tratamendua)
Orotara 324 ordu filmaturik



Ondarea & sorkuntza

Ondarea sorkuntzaren elikagai...

2011 > 2015

Euskal kultur erakundeak 84 sorkuntza proiektu lagundu ditu 2011-2015 artean, ikusgarri bizidunaren arloan.

Ondarea/sorkuntzaren arteko harremanaz gogoeta

Bost sorkuntza garaikideen ikerketa etnografikoa (2014) :

Sostengatu sorkuntzetarik bost hurbilagotik segitu ditu Denis Laborde antropologoak 2014an, ondarearekiko harremana ongi senditzeko eta aztertzeko. Bost sorkuntza hauek ziren :


- Neo Kotilun, Bardozeke KSI (Kultura Sorkuntza Ikerketa) konpainiarena
- Urruñako Zintzarrotsak, bertako Berttoli elkarteak antolaturik
- Barbau Hamalau : Titika Rekaltek idatzia, Zuberoako Hebertik elkartearen eskutik
- 01.01 : Senpereko Elirale et Bastidako Lagunarte konpainiek emanik
- 0927. Zeld, Senpereko Zarena Zarelako konpainiarena

Topaketak, eztabaida irekiak (2015) :

Denis Laborden «behaketa» hortarik atera analisiak 2015eko urtarrilan eta ekainean antolatu topaketetan eztabaidatuak izan dira, hanbat galderaren bidez: zer da artistaren desmartxa, transmisioa nola egin, zein publiko hunkitu, zerk motibatzen du dantzari gaztea sorkuntza batean parte hartzera, tradizioa nola arraberritu, tradizioa eta egiaren arteko muga non da, sorkuntza parte-hartzailea eta autore sorkuntza nola uztartu, kultura proiektuak nola aztertu eta lagundu : erakunde publikoen ala kultura eragileen irizpideen arabera ?

Gogoeta taldea :

Bestalde, Denis Laborden analisisiek 2012tik hona biltzen den gogoeta talde baten hausnarketak elikatu dituzte. Talde hau EKEko langile, administratzaile baita kultura eragileetatik osatua da. Helburu nagusia Euskal Herriko sorkuntza garaikidearen erronketaz eztabaidatzea du.



EKEk sostengatu sorkuntzak 2011 > 2015

Lagundu elkarte/konpainien egoitza sozialaren arabera, sostengatu diren 85 sorkuntzen banaketa geografikoa



Herrien xehetasunak erakusten dituen mapa, 34 eta 35 orrialdeetan



Ondarea & sorkuntza

15

Ondarea gaurkoari egokitu

2015tik haratago...

Euskal kultur erakundea euskal etnopoloko baten alde agertzen da

Lehen urratsa :

Etnopoloko labela eskuratzea (ikerketa eta baliabide iturri izateko)

- Ahozko lekukotasun guztiak plataforma batean agertu
- «Sorkuntza/ondarea» gogoeta iraunkortu eta elikatu
- Euskal kulturaren aldeko politika eta ikerketa zientifikoa uztartu
- Deialdi artistikoak (ikusgarritasunak, arte bisualak,...) bultzatu



© Johan Morin




Elkarteen laguntzea

Sortu denetik, EKEk lagundu ditu lurraldeko euskal kulturaren alorrean ari diren elkarteak. Adibide gisa, 2010 eta 2015 urteen artean, 245 elkarte sostengatu ditu egitasmoak eraikitzen (laguntza teknikoa, aditu lana, aholkularitza, sareratzea, diruztatzea, ...). Elkarte batzuk urtero lagunduak dira eta beste batzuk aldiz EKEren sostengua noiztenka eskatzen dute.


- Urtero ehun bat egitasmo lagunduak dira
- Urtero 3.000 ordu baino gehiago elkartearen egitasmoen segipenari dedikatuak dira langileen artean (edo 2 denbora oso baino gehiago urtero)
- Ezbaian, urtero 300.000 € baino gehiago artistei eta elkarteei banatuak dira

Sostengatuak izan diren ekarteak alorka (2010 > 2015)



Geroari begira

Gogoeta bat eraman lurraldeko elkartearen jarraipenari buruz.



Urtero
3.000
ordu

elkarteen egitasmoen
segipenarentzat

urtero
100
egitasmo
lagunduak

Urtero
300.000
euro

artistei eta elkarteei
banatuak dira

Mapatik kanpo diren lurraldeetan lagundu ekintzak

- 3 Paue
- 5 Bordele
- 1 Colomiers
- 4 Saint-Ouen
- 2 Hego Amerika
- 2 Ipar Amerika

Sostengatu elkartearen egitasmoak herriko 2010 > 2015

Herrien xehetasunak erakusten dituen mapa, 34 eta 35 orrialdeetan



Lurraldeko kultura dinamiken erdian, EKEk Euskal Herriko eragile nagusiekin hitzartu hedadura handiko proiektuak sustatzen ditu. Alabaina, lurraldea zeharkatzen duten sail batzuen egituratzeak, hala nola dantza, zinema, antzerkia, irakurketa publikoa edo arte eta kultura heziketa, Euskal Herri mailan elkarrekin hobeki bizitzen laguntzen du.

➤ Dantzaren egituratzea

Euskal kultur erakundea osoki engaiatu da, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra elkarrearekin batera, euskal dantzaren berreraikitze, dantza-ondarea, transmisioa eta sorkuntza sostengatzen dituen eskema federatzaile berri baten bitartez.

➤ Arte eta kultura heziketa (EAC)

Irakasleei zuzendu ekintzak antolatuz, EKEk ikastetxe anitz hunki ditu, lurralde guzian.

Departamenduak euskararen eta euskal kulturaren integratzen laguntzeko eginkizuna eman dio, departamenduko arte eta kultura heziketa politikaren barnean.

➤ Euskara eta euskal kultura irakurketa publikoaren sarean integratzea

EKEk irakurketa publikoaren sareko eragileei (Bilketa sarea, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Liburutegia, etab.) zuzendu kultura arartekolari ekintzak eta sentsibilizazio egunak antolatzen ditu, liburutegi-mEDIATEKETAN, eta euskal kultura nola euskal literatura hobeki ezagutarazteko egitasmoak laguntzen ditu.

➤ Euskal zinemaren banatzea

Badu urte andana bat EKE euskal zinemaren ezagutarazteko eta banatzeko lanean ari dela. Errepertorioko film programak lurralde osoan sustatzeaz gain, EKEk, Atalante zinemarekin, euskal zinemaren banaketan azkarki parte hartzen du, Euskal Herrian, Akitania Berriko eskualdean, bai eta Frantzia mailan.

➤ Euskal antzerkiaren hedatzea

IBILKI dispositiboaren bitartez, Euskal Kultur Erakundeak euskarazko antzerkia sustatu du, ikusle berriak erakarriz eta lurralde osoko programatzaile sarea sortuz, euskal antzerkiaren alde ari diren hamar bat leku biltzen dituen.



➤➤ Geroari begira

Arte eta kultura heziketa : euskara eta euskal kultura arte eta kultura heziketaren alorrean integratzeko politika baten egituratzea

Irakurketa publikoa : haur eta gazteen literaturaren inguruan urte anitzetako programa baten plantan ezartzea

Euskal zinemaren banatzea : euskal zinemari zuzendu egitura iraunkor baten plantan ezartzea (filmak geletan banatu, errepertorioko filmak hedatu, mediateketan euskal zinema eskaini, irudiari buruzko heziketa dispositiboak)

Euskal antzerkiaren hedatzea : antzeztu obren kopurua handitu, publikoei zuzendu ararteko lana hobetu eta IBILKI sarean parte hartzen duten egituren kopurua emendatu.

Arte eta kultura heziketa (2011z geroz)

3.288

oren/erabiltzaile

(irakasleei zuzendu animazioak)
161 parte hartzaile

IRAKURKETA
PUBLIKOA



228

2011az
geroz

oren/erabiltzaile

29 egitura - 12 egun,
hots, 96 oren euskal kultura
ezagutarazten edo egiturak
bisitatzen

EUSKAL
ZINEMAREN
BANATZEA

+15.000

2014az geroz

IKUSLE

20 zinema - 4 film
300 emanaldi

EUSKAL
ANTZERKIAREN
HEDATZEA

+3.000


2014az geroz

IKUSLE

30 emanaldi
30 leku - 3 obra

Lurraldeen laguntzea

| 21



Kultura politika publikoen laguntzea


2011n, erakunde publiko ezberdinek Euskal kultur erakundeari misio berri bat eman diote, obragintzalari publikoei laguntza bat ekar diezaien euskal kultura gehiago sartzeko kultura politika publikoetan, aholkuen eta azterketen bitartez.

Hainbat ekintza eramanak izan dira, hala nola :

- Hitzarmen bat izenpetua izan da EKE-ren eta Departamenduaren artean, euskal kultura kontutan hartua izan dadin erakunde horrek eramaten dituen politiketan, besteak beste ondarearen, kultura eta arte heziketaren, ikusgarritasunaren edo euskal zinemaren alorretan ;
- Errobi Herri-Elkargoarekin, ikerketa lan bat egin du, lurraldean kultura egitasmo baten eraikitzeko xedearekin ;
- Kultura eta arte heziketari buruzko ikerketa obratu du, iparraldeko herri-elkargo mailan ;
- Bankako meategi interpretazio zentroaren eraikitzeko egitasmoa hurbiletik segitu du ;
- Herri-elkargoetan, euskal kulturaren ezagutzeko ekintzak bultzatu ditu.

Herri-elkargoen karta, non ere Euskal kultur erakundeak lan egin duen

Euskal Kostaldea-Aturri Hirigunea	Hazparne lurraldeko Herri Elkargoa
Hego Lapurdiko Hirigunea	Amikuzeko Herri Elkargoa
Errobi-Aturri Herri Elkargoa	Garazi-Baigorriko Herri Elkargoa
Bidaxune lurraldeko Herri Elkargoa	Iholdi-Oztibarreko Herri Elkargoa
Errobi Herri Elkargoa	Xiberoko Herri Elkargoa



Herrien xehetasunak erakusten dituen mapa, 34 eta 35 orrialdeetan



Erreferentziazko erakusketa ibiltariak

Azken 20 urteotan, Euskal kultur erakundeak trebetasun bereziak garatu ditu euskal kulturari buruzko erakusketa ibiltari tematikoen ekoizteko eta kudeatzeko. Zabalkunde euskarri horiek multimedian eta interaktibitatean oinarritzen dira. Bestalde, EKEren erakusketak lurraldeen animazio tresna paregabeak dira ere, ekitaldi ezberdinak antolatzekeo parada eskaintzen baidute (eskolendako bisitak, bisita gidatuak, mintzaldiak, ikusgarriak, kontzertuak...) Horietarik batzuek balorapen berezia ukan dute sarean.

Adibide batzu

Kantuketan, euskal kantuen unibertsoa

Ibiltaritza : 2001 - 2005
Bisitari kopurua : 15.000

Batekmila, euskal munduak

Gaia : Euskal nortasuna eta kultura aniztasuna
Ibiltaritza : 2007 - 2010
Bisitari kopurua : 9.000
www.batekmila.net

Itsasturiak

Gaia : Donibane Lohizune-Ziburuko portuaren memoria kolektiboa
Ibiltaritza : 2011 - 2014
Bisitari kopurua : 5.000
www.itsasturiak.com


Soka, euskal dantzaren urratsetan

Ibiltaritza : 2015 - 2018
Bisitari kopurua : 10.000 orain arte (aurreikuspenak : 25.000)
www.soka.eus



Geroari begira

Erakusketa moldagarrien ekoizpena garatu, tokiko baina ere Frantziako edo nazioarteko programatzailen eskaeren asetzeko.



180 AURKEZPEN BAINO GEHIAGO

EKEren erakusketa nagusien ezarpenak (1997 > 2016)

ADIERAZPEN ARTISTIKOAK :

- Kantuketan (2001-2005)
- Batekmila, euskal munduak (2007-2010)
- Euskal kultura ezagutzeko ukipen pantailak (2003...)
- Soka, euskal dantzaren urratsetan (2015...)

MEMORIO KOLEKTIBOA - ONDAREA :

- Euskaldunen Argentina (2005...) | Ekoizpena : 64 departamendua – EKE
- Olentzero (2005...)
- Amikuztarrak mintzo (2009-2010)
- Itsasturiak (2011-2014)

ARGAZKILARITZA :

- Herri ixilean (2010...) | Ekoizpena : Jon Cazenave – Getxophoto
- Dantza izpiak (2015...) | Ekoizpena : Gabrielle Duplantier – EKE

EUSKARA :

- Hitzenea (2013...) | Ekoizpena : Oskar Alegria eta EKE
- Euskararen hatsa (1997-2001)

www.eke.eus, internet atari ezagutua

EKEren www.eke.eus webgunea osoki frantsesez eta euskaraz da. Horrez gain, eduki batzu baditu gaztelaniaz eta ingelesez ere. 2005ean sortu zenetik, euskal kulturaren eta horren aktualitateari buruzko informazio orokorra eskaintzen du. Tokiko, baina ere mugaz bestaldeko eta nazioarteko publiko bati zuzentzen da. Baliabide profesionalen plataforma bat da ere, euskal kulturaren alorrean ari diren eragileen zerbitzuko dena.

Eke.eus ataria, hau da...

Euskal kultura aktualitate guzia

Agenda eta albisteak, kultura eragileen elkarriketak, asteroko boletina...

Txosten tematikoak

Multimedia sintesiak euskal kulturaren alor nagusietaz (euskara, antzerkia, literatura, musika, dantza, bertsularitza, zinema...), datu-base berezietuek aberasturik (erregistroak, musika partiturak...).

Errepertorioa

Artisten eta kultura eragileen errepertorioa (800 erreferentzia baino gehiago) gaika sailkatua (ikusgarri gelak, festibalak...).

Baliabide profesionalak

Albiste profesionalen hari bat (proiektu deialdiak, formakuntzak, ikerketak...), bai eta kultura biziko eragileei zuzendutako tresnak (errepertorioak, katalogoak, boletina).

Geroari begira

Bilakaera Euskal Herri mailako euskal kulturaren baliabide eta zerbitzu atari bati buruz.



f FACEBOOK
4.200 jarraitzaile

t TWITTER
2.800 harpidedun

2015ean www.eke.eus
ATARIAN IZAN DIREN

291.935

bisiten banaketa munduan

Iturria : EKE - Google Analytics

210.887 erabiltzaile
2015ean

940.162 orri ikusiak
2015ean

2005eko apirilean abiatu zenetik...

2 355 664 bisita | 1 546 781 erabiltzaile | 9 177 754 orri ikusiak


Euskal kulturaren behatoki bati buruz

Erregulariki, Euskal kultur erakundeak sintesia bat egiten du Ipar Euskal Herrian antolatuak diren euskal kulturaren inguruko gertakariekin (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...). Bestalde, zaintza horri esker, euskal kultura egiten duten pertsona, elkarte eta erakundeen

errepertorioa eguneratzen ahal du. Bildutako datuei esker, urtean zehar programatua izan den eskaintza kulturalaren estatistika panorama ongi osatua lor daiteke, lurraldeka, gaika edo denboraldika sailkatua.

Euskal kulturaren agenda - Datuak gune geografikoen arabera (2013)

Atariko agendaren sail nagusien arabera, 2013an Ipar Euskal Herrian (Kostaldea - Erdigunea - Barnealdea) bilduak izan diren 1.074 ekitaldietan oinarrituta.




01

02

03


01 Kostaldea

- Erakusketak / % 8,3
- Animazioak / % 24,01
- Bertsu saioak / % 2,53
- Festibalak & ekitaldiak / % 7,76
- Hitzaldiak / % 11,37
- Tailerrak-Formakuntzak / % 1,99
- Ikusgarriak / % 9,75
- (Antzerkia: %56 - Dantza: %44)
- Kontzertuak / % 34,3





02 Erdigunea

- Erakusketak / % 8,28
- Animazioak / % 14,83
- Bertsu saioak / % 6,55
- Festibalak & ekitaldiak / % 7,93
- Hitzaldiak / % 5,52
- Tailerrak-Formakuntzak / % 3,45
- Ikusgarriak / % 14,83
- (Antzerkia : %51 - Dantza : %44 - Besterik : %5)
- Kontzertuak / % 38,62



03 Barnealdea

- Erakusketak / % 5,7
- Animazioak / % 19,74
- Bertsu saioak / % 5,26
- Festibalak & ekitaldiak / % 7,46
- Hitzaldiak / % 9,65
- Tailerrak-Formakuntzak / % 0,88
- Ikusgarriak / % 21,05
- (Antzerkia: %67 - Dantza: %33)
- Kontzertuak / % 31,14



Herrien xehetasunak erakusten dituen mapa, 34 eta 35 orrialdeetan

Geroari begira

Euskal kulturaren behatokiaren funtzioaren segipena, kultura politika publikoen laguntza hobetzeko.


www.eke.eus atariko errepertorioko euskal kultura eragileak (artistak, elkarteak, erakundeak) herrien arabera banatuak (2016)

- 40 baino gehiago
- 20 eta 30 artean
- 5 eta 10 artean
- 30 eta 40 artean
- 10 eta 20 artean
- 5 baino guttiago

Mugazgaindiko harremanak

Euskal kultur erakundeak garatu ditu hainbat partaidetza hegoaldearekin, nola erakunde publikoekin (Eusko Jaurilaritza, Diputazioak, hiriak,...), hala kultura elkarte eta fundazioekin.

EKEk Euskadiko eta Nafarroako hainbat herritan partaidetzak garatu ditu



Geroari begira

- Hegoaldearekilako harremanak oraino indartu, Nafarroan bereziki;
- Euskal kultura sarrarazi hiri handietako kultura programa ezberdinetan.



Hedapena munduan

Euskal kultur erakundeak hainbat kultura eta arte trukaketa bideratu ditu, nola munduko artistak Euskal Herrira ekarraraziz, hala hemengoak munduko kulturen partekatzerara gomitatuz.

AMERIKAK

- . Ameriketako Estatu Batuak :
 - New-York
 - Chicago
 - Boise (Idaho)
 - Reno (Nevada)
 - San Francisco (Californie)
- . Kanada
- . Argentina
- . St-Pierre-eta-Mikelune

EUROPA

- . Alemania
- . Belgika
- . Bulgaria
- . Kroazia
- . Espainia
- . Hungaria
- . Italia
- . Errumania
- . Eslovenia
- . Eskozia

ASIA

- . Armenia
- . Iran
- . Georgia
- . Txetxenia
- . Uzbekistan
- . Kurdistan
- . Jakutia (Sakhako errepublika)

AFRIKA


- . Kongo
- . Maroko
- . Sao Tome eta Principe
- . Reunion uhartea

Geroari begira

Munduko kulturekin trukaketak garatu, egonaldi eta sorkuntza amankomunen bitartez.



Herrien karta



EKEko partaideak



© Marc Mittoux



© Johan Morin



LAPURDI ETA
SUZ ARI X
Redadei
2012